

# hik hasi

## FANTASIA MUNDUA

2019-05-01

### OLATZ SALVADOR. MUSIKARIA

Filosofiako lehen eskolan azaldu ziguten filosofo izateko haur izan behar ginela berriz. Munduari lehen aldia balitz bezala begiratu eta geure buruari etengabe galderak egin. Gertatzen diren gauza guztiei harriduraz begiratzen ikasi eta begi subjektibo, distortsionatu eta koloretsu horien esentzia mantendu.

Paradoxikoa da nola, hazten goazen neurrian, badugun gudan izan diren gu guztiak geruzaz estaltzeko joera hori. Nik barruan dudak haurra esku ahur bat da eta eskean dabil askotan, jolasean bestetan, irudi berrien bila etengabe. Nekatuta egon arren, ez du ohera joan nahi eta, zerbait/norbait gustatzen zaionean, "loop" botoia sakatzen du, dena behin eta berriz errepikatzeko, harrapatuta geratu arte. Eta nire ni guztien arteko borrokak orroka.

Urte batzuk lehenago, bere mundua bitan zatitzen erakutsi zioten: mundu erreala eta fantasia mundua. Lehena ezagutzen zuela iruditzen zitzaion, baina bigarrenak egonezin moduko bat eragiten zion, bertara nola iritsi, norekin joan edo bertako mamu guztiei nola aurre egin imajinatuz. Ez nintzen inoiz marra hura zeharkatzera ausartu, badaezpada.

Arriskua bada haur izatearen beharrezko balio intrintseko bat. Ikasteko mekanismo gorabeheratsu bat. Saiakera eta akatsen arteko tandem bat, beti deseroso mantenduko gaituena, baina, ezinbestean, berrikuntzarako baldintzak emango dizkiguna. Oreakarion beharrezko oztupoa.

Nik eskua sutan sartu nuen behin. Amak harro kontatzen du larrialdietako trantzearen ostean, beregana joan eta "lasai, ama, dena pasa da" edo antzerako zerbait esan omen niola.

Irakaspena nahiko argia zen. Iritsi ziren gero ñabardurak, zalantzak, seinaleak, debekuak, tunelak eta segurtasun tarteak. Eta, bat-batean, lehengo marra gorriak lausotu ziren, eta gu horietan zehar labaindu ginen, zer egiten ari ginen jakingo ez bagenu bezala. Albo kalterik izango ez balu bezala.

Psikologia kognitiboaren arabera, estimulu baten errepikapenaren ondorioz honekiko erantzuna gutxitu egiten da. Ohikuntza. Hori omen da ikasketa era primitiboena, organismoaren maila guztietan ematen dena. Prozesu hau ezinbestekoa da gizakiok gure ingurumenera egokitzeko. Abesti bat behin eta berriz entzutean, gorputzak dopamina askatzeari uzten dio. Bai, badakit erotzeko arriskua izango genukela hori gertatu ezean, baina nostalgia moduko bat eragiten dit fenomeno horrek. Eta nire ni haurrenak

oihukatzen du Alaine Agirrereren Odol mamituak liburuaren hasieran irakurritako Kawabataren aipua: “Gorroto ditut emozio moderatuak”.

Duela urte batzuk aitari galdetu nion ea non geratu ote zen fantasia mundua. Erantzun zidan fantasia munduak hor jarraitzen duela. Pertsonaiak eta paisaiak aldatu direla, besterik ez.

**hik hasi** aldizkaria (238. zenbakia)

[http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190501/FANTASIA\\_MUNDUA?ve=print](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190501/FANTASIA_MUNDUA?ve=print)

# hik hasi

## EL MUNDO DE LA FANTASIA

01-05-2019

**OLATZ SALVADOR. MÚSICO**

En la primera clase de filosofía nos explicaron que para ser filósofos debíamos ser niños de nuevo. Mirar al mundo como si fuera la primera vez y hacernos preguntas constantemente. Aprender a mirar con asombro todas las cosas que suceden y mantener la esencia de esos ojos subjetivos, distorsionados y coloridos. ...

Es paradójico que, a medida que vamos creciendo, tengamos esa tendencia de cubrir de capas a todos los que han estado en nosotros. El niño que yo tengo dentro es una palma de mano y está mendigando muchas veces, jugando otras, buscando imágenes nuevas. A pesar de estar cansado, no quiere irse a la cama y, cuando le gusta algo/alguien, pulsa el botón "loop" para que todo se repita una y otra vez hasta quedar atrapado. Y las luchas entre todos mis yo rugiendo.

Años antes, le habían enseñado a dividir su mundo en dos: el mundo real y el mundo fantástico. El primero le parecía conocido, pero el segundo le causaba una especie de inquietud, imaginándose cómo llegar a él, con quién ir o cómo enfrentarse a todos los fantasmas. Nunca me atreví a cruzar aquella línea, por si acaso.

El riesgo es un valor intrínseco necesario de ser niño y la niña. Un mecanismo de aprendizaje fluctuante. Un tándem entre intentos y errores que siempre nos mantendrá incómodos, pero que inevitablemente nos dará condiciones para la innovación. El obstáculo necesario para el equilibrio.

Una vez metí la mano en el fuego. La madre cuenta orgullosa que tras el trance de las urgencias, fui a ella y que al parecer le dije "tranquila, ama, todo ha pasado" o algo parecido. ...

La enseñanza era bastante clara. Llegaron luego los matices, las dudas, las señales, las prohibiciones, los túneles y los tramos de seguridad. Y, de pronto, las antiguas líneas rojas se difuminaron, y nosotros nos resbalamos a través de ellas, como si no supiéramos qué estábamos haciendo. Como si no tuviera ningún daño lateral.

Según la psicología cognitiva, la repetición de un estímulo reduce la respuesta a este. Habitación. Según parece es la forma de aprendizaje más primitiva que se da en todos los niveles del organismo. Este proceso es imprescindible para que los seres humanos nos adaptemos al medio ambiente. Al escuchar una y otra vez una canción, el cuerpo deja de liberar dopamina. Sí, sé que tendríamos el riesgo de volvernos locos si no ocurriera eso, pero me produce una especie de nostalgia ese fenómeno. Y mi yo de niño grita la cita de Kawabata leída al inicio del libro *Odol mamituak* de Alaine Agirre: "Odio las emociones moderadas".

Hace unos años le pregunté a mi padre dónde había quedado el mundo de la fantasía. Me respondió que el mundo de la fantasía sigue ahí. Que han cambiado los personajes y los paisajes, nada más.

**hik hasi** (revista número 238)

[http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190501/FANTASIA\\_MUNDUA?ve=print](http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20190501/FANTASIA_MUNDUA?ve=print)